# [Eusk/Cast] Su-etena ¡Palestina aurrera! / □ ¡Adelante Palestina!

JON IURREBASO ATUTXA :: 22/05/2021

Palestina soporta la NAKBA oficialmente desde 1948. Herida sangrante para el pueblo palestino.

**[Euskara]**

**Su-etena ¡Palestina aurrera!**

Ofizialki, Palestinak Nakba 1948tik jasaten du. Zauri odoltsuak palestinar herriarentzat. Ordutik, Erresistentzia presente egon da. Era berean, Erresistentzia bera Osloko akordioak (93) eta Palestinako indar erreformista eta burgesek baldintzatua egon da.

Duela gutxi, Palestinako Erresistentziak aginte bateratu batean egin du bat, erakunde bakoitzaren subiranotasuna mantenduz. 2021eko maiatzean islatuta geratu dira erresistentzia bateratuaren gaitasunak. Ez bakarrik Palestinaren suntsipena eragozteko, baizik eta sionismoaren erasoei erantzuteko, hura suntsitzeko.

Erresistentziaren ardatzak garaipen taktiko eta estrategikoa lortu du Palestinan. Armada sionista urduri jartzeaz gain, gizarte sionista (salbuespenak salbu) berak beldurra sentitu du lehen aldiz Hezbolak (Libano) armada sionista garaitu zuenetik.

Erresistentziaren ardatzak argi dauka zein izan behar den bere eginbeharra. Gaur bataila bat irabazi dute, baina herrialde inperialistak lanean ari dira orain, hurrengo norgehiagoka eurentzat hain zorigaiztokoa izan ez dadin. Zentzu horretan, etorkizuna borrokarena baino ezin da izan.

Gure ustez, munduko proletalgoak badaki lurralde horietan ezin dela klase-borroka aurreratu bat garatu (europar kontzeptu pean) inperialismoa gainditu gabe. Han, kontraesanak hain handiak diren, non klaseen arteko borrokak ez du beste maila altuagoa lortzerik izango, inperialismoa/sionismoa erabat garaituz ez bada.

Bakoitza bere eremuan, bistan da. Hala ere, batzuetan gainditu egin behar dugu alderdi- eta lurralde-eremua, eta plus bat ezarri sionismoaren/inperialismoaren aurka **dena** ematen ari denaren alde. **Dena** esaten dugunean, ez dugu militante bakoitzak militantziari eskaintzen dion aisialdiaz hitz egiten, borrokatzeaz eta, askotan, hiltzeaz baizik.

Gure pentsamenduak bat egiten du erresistentziaren ardatzarekin (Libano, Siria, Irak, Palestina, Yemen, Iran), hau da, inperialismoaren etsaia izatearekin. Inperialismoa kapitalismoaren fase bat den heinean, hortxe sakondu behar dugu kontraste eta informazio-dinamiketan.

Munduko langileria bere abangoardiako erakundeek koordinatzen duten heinean (eta Amerika, Asia eta Europako beste batzuek deskribatzen dizkiguten gertaerak irakurtzen

dakien heinean) aurrerapauso handiak ematen ariko da.

Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista Iraultzaile baten alde, Euskal Herria askatzeko gai izango dena eta munduko proletarioei ezinbesteko koordinazioa eta ekarpena egiten lagunduko diena.

Jon Iurrebaso Atutxa 2021-05-21

**[Castellano]**

**¡Adelante Palestina!**

Palestina soporta la NAKBA oficialmente desde 1948. Herida sangrante para el pueblo palestino. Desde entonces la Resistencia ha estado presente. A su vez, la Resistencia palestina siempre ha estado condicionada por los acuerdos de Oslo (93) y por las fuerzas burguesas y reformistas.

Hace bien poco que la Resistencia Palestina se ha unificado en un mando conjunto, manteniendo la soberanía de cada organización. En este mayo de 2021 han quedado reflejadas las capacidades de la Resistencia unificada. No solo para impedir la destrucción de Palestina sino para responder a los ataques del sionismo para aniquilarla.

El eje de la Resistencia en Palestina ha logrado una victoria táctica y estratégica. No solo han puesto nervioso al ejercito sionista, sino que la propia sociedad sionista (salvo excepciones) ha sentido temor por primera vez desde la derrota del ejército sionista a manos de Hezbolá (Líbano).

El eje de la Resistencia lo tiene claro. Hoy han ganado la batalla, pero los países imperialistas están trabajando ahora mismo para que la siguiente confrontación no sea igual de desastrosa. En ese sentido el futuro no puede ser otro que el de la lucha.

Entendemos que el proletariado mundial sabe que, en esos territorios no puede desarrollarse una lucha de clases avanzada (dentro de la compresión europeísta de la misma) sin vencer al imperialismo en el terreno. Allí las contradicciones son tales que no se podrán alcanzar otros peldaños en la lucha de clases si no es derrotando totalmente al imperialismo/sionismo.

Cada cual en su terreno. Cierto. Aun así, hay ocasiones que tenemos que superar el ámbito partidista y territorial y marcar un plus a favor de quien lo está dando **todo** contra el sionismo/imperialismo. Cuando decimos **todo**, no hablamos del tiempo de ocio que cada militante dedica a la militancia, sino de luchar hasta el punto de, muchas veces, morir.

Nuestro pensamiento está con lo que nos une al eje de la resistencia (Líbano, Siria, Irak, Palestina, Yemen, Irán), es decir, ser enemigos del imperialismo. En tanto que el imperialismo es una fase del capitalismo, ahí es donde debemos profundizar en las dinámicas de contraste e información.

En la medida que la clase obrera mundial esté coordinada por sus organizaciones de

vanguardia (y sepa leer los acontecimientos que describirnos más otros de América y Asia y Europa) estaremos dando pasos de gigante.

Por un Movimiento Socialista Revolucionario de Liberación Nacional capaz de liberar a Euskal Herria y contribuya a la imprescindible coordinación y aporte al conjunto del proletariado mundial.

Jon Iurrebaso Atutxa 21-05-21

---

*https://www.lahaine.org/mm_ss_mundo.php/eusk-cast-su-etena-ipalestina*